BIZITEGI ERAIKINA — SAN MARTZIAL 21

D MAILA





Egilea eta data: Adolfo Morales de los Rios eta Miguel Irastorza; 1889

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, azkena nabarmen atzeraemana jatorrizko proiektuan. Harlanduzko fatxada behe oinean, gaur egun hareharriz xaflatuta, eta entokatua goi oinetan, baoen azpadurak nabarmenduta eta harlanduzko erlaitza. Behe oineko bao bikoitza jatorrizkoa da. Zurezko begiratokia du lau goi oinetako ezkerraldeko baoan.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. goi oina, atzeraemana.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.